

Esamolde eta esaerak interpretatzen


Euskal esamolde eta esaera batzuk zer adierazten duten aztertuko dugu jarduera honetan. Hemen ageri direnak ez dira ezagunenak, baina bai esanguratsuak.

Ariketa hauek dituzu hemen:

- Taldea bitan banatuta, interpretatu egokitutako esamolde-sorta.
- Talde osoari begira, esamolde horietakoren bat erabiltzeko egoeraren bat irudikatu, idatzi eta jarri foroan, taldeko kideek asmatu dezaten.



Oharra: Ikasgelan ez bazaudete, talde-jarduera hau egiten hasi aurretik, adostu irakaslearekin batera zuen arteko komunikazio-tresna: foroa, posta elektronikoa, WhatsApp, Teams, Hangout, Google Duo, Skype...



1. Esamoldeen esanahiaren bila

- Interpretatu 1. taldeko edo 2.eko esamoldeak

1. TALDEA

- Lotu itzazu 1. taulako esamoldeak esanahiekin.

1. taula

Esamoldeak 1	Esanahia
1. Hara, umea, emango dinat belarrondoko bat eta paretak emango din bestea.	a) Pertsona bat prest dagoenean zeozer egiteko.
2. Amurako dago / Ez dago amurako.	b) Ligatzeko proposamena.
3. Hil edo bizi.	c) Hori normalean gurasoek umeei esaten diete leporaino nazkatuta daudenean.
4. Joan hadi popatik hartzera.	d) Beti kexaka ari denari esan ohi diogu.
5. Zu zeratzen bazara, eta ni zeratzen banaiz, biok zeratuko gara.	e) Espabilatu beharra dago, zeozer lortuko bada.
6. Oilo zaharrak salda hobea.	f) Joan hadi antzarak ferratzera.
7. Zuk beti ipurdian zuloa.	g) Jotake.
8. Esaten badozu nahi dozuna, entzungo dozu nahi ez dozuna.	h) Helduak gazteak baino interesgarriagoak omen dira.
9. Lo egon hadi eta jango duk me.	i) Isiltzen ez denari esaten zaio.

- Partekatu zure erantzunak zure taldeko ikaskideekin, komunikatzeko duzuen lekuan (foroan, WhatsApp taldean...) eta saiatu adosten.



- Entzun audioa eta zuzendu.

- Kontatu beste taldeko ikaskide bati entzundako esamoldeetako batzuk, ea asmatzen duen zer esan nahi duten.



2. TALDEA

- Lotu itzazu 1. taulako esamoldeak esanahiekin

2. taula

Esamoldeak 2	Esanahia
1. Zuk buruan ere hesteak dituzu.	a) Janariari buruz etengabe galdezka ari direnei.
2. - Zer dago bazkaltzeko? - Zera, armiarmaren zankarroia eta txepetxaren muinak.	b) Zaila da zenbaiten jokaera defendatzea, gaiztakeriarako joera baitute.
3. Zuk bilatuko dituzu zeure burua erretzeko egurrak.	c) Garaiz gogoratu ezean, gero bila joan behar.
4. Umeek eta ahuntzak daukaguzenok isilik egon behar	d) Alferra denari esaten zaio.
5. Kanean kontaktzen dozuzen (dituzun) gauzak gero ezin leikez (litezke) eskuareaz batu.	e) Beti jaten pentsatzen ari den pertsonari.
6. Burua ibili ez dabenak (duenak) hankak ibili behar.	f) Gauzak neurritz dira onak; gehiegikeriak inoiz ez.
7. Hego bako eulia baino arpelagoa izan.	g) Bere buruaren kontra ari denari esaten diogu.
8. Oiloa otara eta nire begiak lotara.	h) Gauean oheratzerakoan esan ohi da.
9. 'Arto bero usaina dago hemen' edo 'Atzamarra bada besoa'.	i) Etxeko sua etxeko hautsez estali behar da.
10. Larra, txarra.	j) Gertaerak edo gauzak handitzen dituenari.


- Partekatu zure erantzunak zure taldeko ikaskideekin, komunikatzeko duzuen lekuan (foroan, WhatsApp taldean...) eta saiatu adosten.
- Ondoren, entzun audioa eta zuzendu. Denak asmatu al dituzue?
- Kontatu beste taldeko ikaskide bati entzundako esamoldeetako batzuk, ea asmatzen duen zer esan nahi duten.



<https://labur.eus/ffQir>




2. Egoerak asmatzen esamoldeak erabiltzeko

 Esamoldeek, esaera zaharrek bizitasuna ematen diote hizkuntzari, aberastu egiten dute gure jarduna. Zuk erabiltzen al dituzu? Helbide honetan informazio gehiago daukazu esamoldeei buruz.

Ariketa honetan ez zarete bi taldetan arituko, talde osoa izango da erreferentzia. Irudikatu bakoitzak esamolde bat erabiltzeko egoeraren bat (elkarrizketa labur bat, albistea...) idatzi -baina esamoldea ez- eta jarri foroan (Whatsapp-taldean edo dena delakoan).

Taldekideek asmatu behar dute egoera horretan zer esamolde edo esaera erabiliko luketen (bat baino gehiago izan litezke zuzenak). Baloratu foroan zuen artean, nork idatzi duen egoerarik ederrena, eta ea nork asmatzen dituen taldekideen esamolde gehien.



*Larra, txarra
Zuk buruan ere hesteak dituzu
Oilo zaharrak salda hobea
Amurako dago*

ERANTZUNAK

Esamoldeak 1

1-c 2-a 3-g 4-f 5-b 6-h 7-d 8-i 9-e

Esamoldeak 2

1-e 2-a 3-g 4-b 5-i 6-c 7-d 8-h 9-j 10-f

TRANSKRIPZIOAK

Esamoldeak 1

Manu Etxezortu esataria. Euskara gazteen artean sustatzeko asmoz, hirugarren **Botaba** erronkaren edizioa antolatu du Labayru Fundazioak. Bueno, sare sozialak euskal esamoldeekin bete nahi dituzte, eta horretarako gazteen arteko lehiaketa antolatu dute. Hori aitzakiatzat hartuta, Euskal Herriko hiru txoko aukeratu ditugu bertan erabiltzen diren esamoldeak ezagutzeko, ezta? Izaro.

Izaro esataria. Hala da bai, Manu. 16 urtetik gorako edonork parte hartu dezake erronka honetan, baina guk lehiaketatik kanpo ba norbaiti ideaiaren bat emateko asmoz jo dugu Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako herri banatara: Lekeitioko Nere Jauregi, Lazkaoko Joxepa Madariaga eta Urdiaingo Iñaki Berasategirekin hitz egin dugu.

Esaterako, Manu, etxean, familian, haserretzen garenean edo ondokoak dioenak gogaitu gaituenean, zer esan genezake? Ba Joxepa Madariagak honako hau kontatu digu.

Joxepa Madariaga. "Hara, umea, emango dinat belarrondoko bat eta paretak emango din bestea!" Hori normalean gurasoek umeei esaten diete, haurrei, oso, oso haserre egon behar dute gurasoek hori esateko; leporaino, leporaino nazkatuta!

Izaro esataria. Oso pedagogikoa ez da, baina...

Manu Etxezortu. Alda dezagun egoera.

Izaro esataria. Hori da. Lekeition esaterako: itsasoari lotutako esamolderen bat aurkitu dugu. Arrantzan zer behar izaten da arrainak harrapatzeko? Ba amua!

Manu Etxezortu. Amua.

Nere Jauregi. "Amorako (amurako) dago, edo ez dago amorako". Amoa da ba arrantzarako tresna (tresna). Eta nahi du esan ba pertsona bat prestu dagoenean zeozer egiteko, ba esaten dugu amorako dagoela. Ba, adibidez, gaur deitu nauzu eta ni amorako egon na(i)z, prest ego na(i)zelako ba zugaz (zurekin) berba egiteko. Eta ordu(a)n atrapa(tu) nauzu ba amorako, eta izango litzateke, ba ez dago amorako, ez dauko hori egiteko gogorik edo ez du nahi edo ez dabil prestu.

Izaro esataria. Hori da, Beraz, nire amorako zegoen, nirekin hitz egiteko. Batarekin edo bestearekin hitz egiteko prest, berriz, herriko festetan egoten gara sarri, Manu. Lehen egunean izaten den indar bera azken egunean izatea zaila izaten da, baina Urdiainen garbi dute.

Iñaki Berasategi. Bueno, gure herrian esaten diogu "hil edo bizi". Eta antzekoa izan daiteke "jotake". Egia esan, bereziki erabiltzen dugu hau festetarako, ze herriko blusen edo atorren festetan, hori armarran, grabatuta egoten da, eta garai batean ba festak aprobetxatzeko eta esaldi bat lagunen artean beti izaten zen "hil edo bizi" egitea festa horiek, eta zen jotake antzeko bat.

Manu Etxezortu esataria. Jotake edo antzeko zerbait. Bueno, entzuleak ere hasi dira beraien proposamenak egiten. Entzule batek dio Bermeon asko erabiltzen dutela: "Joan hadi popatik hartzera". Bermeo aldean asko erabiltzen dutela.

Izaro esataria. Jarraitu egingo dugu. Herriko festetan lagunekin egotea eta ondo pasatzeaz gain, ba batzuen helburua zein izaten da, Manu? Ba ligatzea.

Manu Etxezortu esataria. Ligatzea.

Izaro esataria. Eta ligatzeko bi esamolde desberdin aurkitu ditugu. Lehena Joxepa Madariaga lazkaotarrak ekarri digu.

Joxepa Madariaga. "Zu zeratzen bazara, eta ni zeratzen banaiz, biok zeratuko gara". Hau da ba ligatzeko proposamen bat: ezer esan ez, eta dena esaten dena.

Manu Etxezortu. Bai, hau oso polita da, e!

Izaro esataria. Zeratzera.

Manu Etxezortu esataria. Batere esplizito izan gabe, bueno edo igual oso zehatza zara, ez? Zu zeratzen bazara eta ni zeratzen banaiz, biok zeratuko gara.

Izaro esataria. Eta garrantzitsua, norekin ligatu, Manu! Batzuek ilegorriak dituzue gustuko, besteek beltzaranak, batzuei begi berdedun begiradek erakartzen diete, eta adinari ere begiratzen diote Urdiainen.

Iñaki Berasategi. "Oilo zaharrak salda hobea". Batetik, izaten da, ba bueno, sukaldatzeko eta nik amonari entzun izan diot, oilo zaharrak eta beste zapore bat ematen ziola; eta bestetik, hau ere lotzen zen ligatzeko orduan, ez? Oilo zaharrak salda hobea esan nahi zuen, ba bueno, helduagoak ziren mutiko edo neskak interesgarriagoak zirela. Orduan esaldi horrek normalean bi bertiente edo bazeuzkan.

Manu Etxezortu esataria. Bai. Hau zuzena litzateke gaur egungo ikuspegitik? Oilo zaharrak salda hobea, pertsona ja helduak interesgarriagoak direla, ez?

Izaro esataria. Planak egiterako orduan, edo bidaia bat hartzerakoan, denen agendak begiratu eta jende gehiena noiz edo non bildu erabakitzea kostatzen zaigu askotan. Esaterako, Manu, laneko zein lagunarteko bazkari bat antolatzeko eguna erabakitzea, tokia erabakitzea, eta horrelako kasuetan trabak besterik jartzen ez dituen bati, zer esango genioke? Honakoa.

Joxepa Madariaga. "Guk beti ipurdian zuloa!" Hau beti kexatzen denari esaten zaio, ezta? Hau beti kexatze denari esaten zaio. Planen bat esan, eta beti: "Bai, baina, lehenago balitz! Edo gorria ez, berdea izan balitz edo" Zuk beti ipurdi(a)n zuloa.

Manu Etxezortu esataria. Beraz, norbaitek...

Joxepa Madariaga. Beti, hola, kexaka ari den pertsonari.

Manu Etxezortu esataria. Beti kexaka ari den pertsonari.

Izaro esataria. Hori da, oztopoa jarri besterik...

Manu Etxezortu esataria. Zuk beti ipurdian zuloa.

Izaro esataria. Hori da. Burugogorkeriagatik oztopoa jartzen ari denaren seinale, ba pertsona horrek askotan gogorik ere ez du izaten plan horietara joateko, baina badaezbada ere oztopoak jartzen ditu. Aitzakiak jartzen ere eta isilitzen ez denik ere badelako, horri bueltan Lekeition honakoa esango diote:

Nere Jauregi. "Esaten badozu (baduzu) nahi dozuna, entzungo dozu nahi ez dozuna". Eta horrek berak esaten du dena. Bai?


Manu Etxezortu esataria. Oso zehatza da, e?: "Esaten baduzu nahi duzuna, entzungo duzu nahi ez duzuna".

Izaro esataria. Hori da.

Manu Etxezortu esataria. Entzuleen proposamenak, hemen, entzule batek dio: "Joan hadi antzarak ferratzera!" Erabiltzen dugu Antzuolan. Hemen, entzule batek, ez?

Izaro esataria. Bai, Lazkaon ere.

Manu Etxezortu esataria. "Lo egon hadi eta jango duk me", dio beste batek...



Esamoldeak 2

Manu Etxezortu esataria. Euskara gazteen artean sustatzeko asmoz, hirugarren **Botaba** erronkaren edizioa antolatu du Labayru Fundazioak. Bueno, sare sozialak euskal esamoldeekin bete nahi dituzte, eta horretarako gazteen arteko lehiaketa antolatu dute. Hori aitzakiatzat hartuta, Euskal Herriko hiru txoko aukeratu ditugu bertan erabiltzen diren esamoldeak ezagutzeko, ezta? Izaro.

Izaro esataria. Hala da bai, Manu. 16 urtetik gorako edonork parte hartu dezake erronka honetan, baina guk lehiaketatik kanpo ba norbaiti ideaiaren bat emateko asmoz jo dugu.

Bada, ordea, jendea eguneko momentu guztietan jateko prest dagoena. Ba Lazkaon bada horretarako esamoldea:

Joxepa Madariaga. "Zuk buruan ere hesteak dituzu". Hau esaten zaio asko eta maiz jaten duenari. Beti jaten pentsatzen, beti jaten ari den pertsona horri -eta normalean, gainera, gizentzen ez denari- "Zuk buruan ere hesteak dituzu".

Izaro esataria. Beraz, ba, buruan hesteak izateaz gain, badira ba haurrak egunero eta aldian behin baino gehiagotan bazkaltzeko zer dagoen galdetzen duenik, etengabe ikastolatik bueltan edo...

Joxepa Madariaga. "Zer dago bazkaltzeko? Zera, armiarmaren zankarroia eta txepetxaren muinak". Hau ba normalean umeei esaten zaie, beti galdezka ari direnei eta gainera, normalean, ume horiek jale txarrak edo beti kexan ari direnak izaten dira.

Manu Etxezortu esataria. Nerea, zuk zerrenda bat ekarri diguzu hor...

Nerea Ibarzabal tertuliakidea. Bai. Badaukat bat oso polita esateko, bueno, zuk bilatuko duzu zeure buruaren kaltea edo. Esaten omen zuten: "Zuk bilatuko dituzu zeure burua erretzeko egurrak" Eta oso polita iruditu zait, oso, oso grafikoa.

Beste bat zeukan (aitak)esaten zuena "Umeek eta ahuntzak daukaguzenok isilik egon behar". Eta esan nahi du, bueno ahuntzak dauzkanak, askotan ahuntzak inguruko larrera edo bestearen sailera pasatzen da, eta ez duzu kontrolatzen eta beti, badakizu hala izan dela gainera, eta umeekin berdin, eta ezin duzula umea edo ahuntza defendatzen hasi, ze normalean txarra berak egingo zuen...

Manu Etxezortu esataria. Bai. Hori da.

Nerea Ibarzabal tertuliakidea. Eta beste bat, hau gure aitak esaten du asko. Baserrietan nire ustez badago obsesio moduko bat etxeko gauzak etxean gestionatu beharrena edo, bueno, baina beti barruan gordetzea, ez? Eta esaten zuten: "Kalean kontatzen dozuzen (dituzun) gauzak gero ezin leikez (litezke) eskuariatu batu". Eskuarearekin ezin...

Manu Etxezortu esataria. Aldiz, etxean erratza pasatuko dugu, eta etxean bertan geratu dadila.

Nerea Ibarzabal tertuliakidea. Bai. Bai. Oso ona iruditzen zait. Eta beste bat Markinan tipikoa da. Ba imaginatu, zerbait ekarri behar zenuen eta ahaztu egin zaizu eta berriz bila joan behar izan duzu nonbaitera: "Burua ibili ez dabenak (duenak) hankak ibili behar!"

Manu Etxezortu esataria. Hara ze polita hori, e?

Carlos Cid tertuliakidea. Nik apuntatuta dauzkat Miren Intxaurren orozkotarra zenak erakutsi zizkidan bi, bi esamolde, buruan iltzatuta dauzkadanak. Bata da konparazio bat alferra izan esateko. Berak esaten zuten: "Hego bako (gabeko) eulia baino arpelagoa (alferragoa) izan". Hori gustatzen zitzaidan. Eta, eta beste bat: "Oiloa otara eta nire begiak lotara". Hori esaten zuten lotara zihoan bakoitzean eta ez dakit, ez dakit zergatik hori buruan geratu zitzaidan eta oso polita.

Iruditzen zait esamolde hauen bidez, koloreztatzen dugula hizkuntza, metafora erabiltzen dugula, poesia erabiltzen dugula, eta pena handia da benetan hauek galtzea.

Xabier Amuriza tertuliakidea. Orduan ba nik ere neure zerbait, ekarpena egiteko, besteena entzun bakarrik ez, orduan ba bi esango ditut, Bizkaian oso ezagunak direnak. Hor batek esan du ba bururik ez darabilenean hankak erabili behar, eta hori Bizkaia osoan ezaguna da. Norbait gauzak handiegiak, exageratzen ari den tabernan sartzen ari zara, eta norbait, adibidez, kontatzen ari da gauza handiak, eta orduan, esaera bat da: "Arto bero usaina dago hemen". Eta arto beroak badakizu, eginberri da beti, irtenberri du usaina, kea botatzen du eta "Hemen arto bero usaina dago".

Manu Etxezortu esataria. Arto bero usaina dago.

Xabier Amuriza tertuliakidea. Edo berdin, baita "Atzamarra bada besoa" ere Bizkai guztian erabiltzen da. Ba, "horrek atzamarra bada, besoa esango dizu", esango deutsu (dizu). Gauza txikia handi egiten du, edo kendu ere berdin. Eta gero, azkenean bukatzeko, gauza asko daude euskalkitik euskalkira pasatzea zaila dena, eta orduan, Bizkaian, "Larra, txarra". Eta nondik dator hori? Ba lar da larregiren laburpena, gehiegi. Gauza onetan ere ez dago bizkaitarrik esan ez duenik "Bai, baina larra, txarra".

Manu Etxezortu esataria. Bueno, ba hortxe, gure ekarpena euskal ondareari, e? Bueno, entzuleek eta segitzen dute esaera zaharrak-eta bidaltzen: "Gustuko tokian aldaparik ez", "Bost xentimoko pupua eta hamarrekoko trapua" dio beste batek.

